

**ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA**

Gizarte Gaietako Sailburuordetza
Immigrazioko eta Aniztasuna
Kudeatzeko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
ASUNTOS SOCIALES**

Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Inmigración y Gestión de la
Diversidad

Atzeritartasun-txostenei buruzko
INFORMAZIO OHARRA,
atzeritartasun-erregelamendu berria
indarrean hastearen ondorioz (557/2011
ED).

NOTA INFORMATIVA relativa a los
informes de extranjería, con motivo de
la entrada en vigor del nuevo
reglamento de extranjería (R.D.
557/2011)

Eraginpean hartutako pertsona eta
erakunde guztientzat.

A todas las personas y entidades
concernidas

Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioko eta
Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak
honako hauek jakinarazi nahi dizkizue
557/2011 Errege Dekretuan bildutako
gizarteratze-ahaleginei, etxebizitza-
egokitzeari eta gizarte-sustraitzeari
buruzko txostenen inguruan.

La Dirección de Inmigración y Gestión
de la Diversidad del Gobierno Vasco
informa de las siguientes cuestiones
relativas a los informes de arraigo
social, adecuación de vivienda y
esfuerzos de integración, recogidos en el
R.D. 557/2011.

Eusko Jaurlaritzak eta EUDELek
akordio bat sinatu dute eta, horren
arabera, 2011ko uztailaren 1etik aurrera,
Euskadiko udalek gizarte-sustraitzeari
eta etxebizitza-egokitzeari buruzko
txostenak kudeatzen eta ematen
jarraituko dute. Udal guztiei, Gobernuak
Euskadin duen Ordezkaritzari eta
Immigrazio eta Emigrazioko Estatuko
Idazkaritzari eman diegu akordio horren
berri.

El Gobierno Vasco ha llegado a un
acuerdo con EUDEL, que ha sido
comunicado a todos los ayuntamientos,
la Delegación del Gobierno en Euskadi
y la Secretaría de Estado de Inmigración
y Emigración, según el cual, a partir del
1 de julio de 2011 los informes de
arraigo social y adecuación de vivienda
se continúan gestionando y emitiendo
por los ayuntamientos de Euskadi.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren
Immigrazioko eta Aniztasuna
Kudeatzeko Zuzendaritzak bere gain
hartuko du erregelamenduan
aurreikusitako gizarteratze-ahaleginei
buruzko txostenak kudeatu eta emateko
ardura. Txostena eskatzeko interesdunek
Eusko Jaurlaritzaren herritarren
arretarako bulegoetara (Zuzenean) jo
behar dute, eta horretarako sortutako
inprimakia bete.

Por su lado, los informes de esfuerzos
de integración previstos
reglamentariamente se gestionarán y
emitirán por la Dirección de
Inmigración y Gestión de la Diversidad
del Gobierno Vasco. Para solicitarlo,
hay que acudir a las oficinas de atención
ciudadana (Zuzenean) del Gobierno
Vasco, y rellenar un formulario creado a
tal efecto.



Aldi baterako neurriak dira, txosten horiek egiteko administrazio arteko laguntzarako eredu bat zehaztu den heinean. Aldaketa oro komunikatuko da, herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko.

Informazio gehiagorako, deitu 945 016 412 telefono-zenbakira edo idatzi inmigracion@ej-gv.es helbide elektronikora.

Gasteiz, 2011eko ekainaren 30an

Estas medidas tienen carácter transitorio, en tanto se concreta un modelo de colaboración interadministrativa para la elaboración de estos informes. Cualquier modificación será debidamente comunicada, para el mejor servicio a la ciudadanía.

Para más información, puede ponerse en contacto telefónico en el 945 016 412, o en el correo electrónico inmigracion@ej-gv.es

Vitoria-Gasteiz, a 30 de junio de 2011